

Zura eta beronen lanketa

Lurralde urrun eta zabaletan, zuraren lanketa izan da gizonaren jardunbiderik zaharrenetakoa.

Erdi Aroan sarritan ordaintzen zen zergadirua gaitan, eta zura ere erabili ohi zen honetarako. T.K. Derry eta Trevor I. Williamsek diotenez, Egiptok izaia, altzifrea eta hagina ekartzen zituen Siria eta Libanotik; eta Sudanek ordaintzen zuen zurzergaren ondorioz sortu zen *ebano* hitza, egiptierazkoa bait da.

Arotza edo zurginak hainbeste erabiltzen duen erreminta, birabarkia, XV. mendearen lehen herenean ere erabiltzen zen eta biraderarekin batera urrats garrantzitsua izan ziren Behe Erdi Aroko lanabesen bilakaeran.

Birabarkia baino lanabes zaharragoa izan da zerra. Zerraren jatorria argitzeko elazaharretara jo beharrean nago.

Euskal Herrian burdina ezaguna zen baina ez, ordea, zerra, jentilek zuhaitza ebakitzeko erabiltzen zutena.

San Martin Txiki ermentaria zen eta deabrua zen jentilen ermentaria. Behinola San Martin Txikik bere morroia bidali zuen deabruaren ermentaldegira, beraiek ere zerraren jabe zirela han aldarrikatzeko aginduarekin. Hau entzutean deabruak esan zuen: «Ez lukete jakingo zerraren berri, aurretik gaitainoariari begiratu ezean». Azalpen hau aski izan zen San Martin Txikiren ermentaldegian zerra galdatzeko.

Elazaharretik magiara joko dut zur-lanari dagokion honetan. Lucy Mair-i irakurri diodanez, tamaina txikiko gizarteen produkzio-moldearen ezaugarria omen da artisaua nolabait mago edo aztia izatea, eta ez baldin bada, haren egitekoa magiko izena hartzeko moduko arau eta arreta jakin batzuren menpean egotea; eskulangile honek berak ere magia-kutsuko hitzak esaten zituen. Trobiand uharteetan kanoagintzan ari direla gelditu eta hitz magikoak esaten dituzte, bizkorra, itsasorako egokia eta jabearentzat aintza-iturri izan dadin. Tikopian ritualizaturik daude itsas kanoa eta arrantzarako sarea egitea.

Beste antropologo batek, Malinowskik, dioenez, ekintza hauek burutzeak ez du esan nahi artisau horiek aztikeriatan oinarritzen direnik beren helburu praktikoak lortzeko eta abiaburu teknikoak ulertzen ez dituztenik. Malinowskik gaineratzen duenez, gizon hauek ongi baino hobeki zekiten nola lortu kanoaren egonkortasuna, eta ritual honek konfidantza ematen omen zien beraien lanaren ondorioa ona izango zela kanoagintzan ari ziren arotzei.

Zumarragako Antion dagoen zurlanketa erromaniko aberatsa da hereden-
tzia baliotsua, gure antiolako eraikuntzak nolakoak izan zitezkeen ikuseraz-
teko, batez ere zura ugari zen tokietakoak.

Baserrri-bizitza beheko suaren inguruan garatu izan da eta hemen *zizailua*
dugu. Bizkarralde zabaleko haltzaria, hotza eta aire-korronteetatik babesteko
aproposa.

Euskal haltzarigintzaren ezaugarri da, era berean, kutxa; sarri landua izan
ten da, marrazki geometrikoekikoa, gureak bakarrik ez ba dira izaten ere.

Baserrri-bizitzan elizako hilobia etxearen luzapena izan da, ia gure eguno-
tara arte. Argizaioholean “oholekoa” deritzan argizaria kiribiltzen da. Argizaio-
hola hilobiari estu loturik egon ohi da, hildakoei argi egiten bait die.

J. a.ko bigarren milurtean hasi ziren Egipton idien adar artetik pasa eta
pertikari gogor lotzen zitzaion uztarri bikoitza erabiltzen, dagoeneko aipatuak
ditugun T.K. Derry eta Trevor I. Williamsen arabera. Nahikoa idatzi izan da
euskal uztarriari buruz. Euskal Herriaren Tradizio-Jaiak zirela eta Telesforo de
Aranzadik aurkeztu zuen «El yugo vasco Uztarria, comparado con los demás»
txosten interesgarria gogoraraziko dut. Euskal uztarria adarretakoa da, lepa-
txiki gainean ezarri eta adarrei tinkatzen zaie. Abere bakarreko uztarria ez da
asko erabili gure baerrietan, eta idientzako uztarri bikoitza behientzako
baino handixeagoa da.

Gurdigilea izan da beste nekazal lanabes batzu prestatzen aritu izan den
eskulangilea. Baserriko gurdia bertako nekazal ekonomiaren erdi-erdian egon
da, ez ordea artzantz ekonomian. Gurdian gizarte funtzioa betez eraman izan
da baserrira, gurea bakarrik ez den ohiturari jarraituz, etxeokandrea berriaren
arrea, laster gertatu beharra den jazoeraren berri emanez kirrinkaren bitar-
tez. Gurdiaren kanta edo negar honen bidez igartzen zen bestea non zetorren
eta gurutzatzea errazten zen ibilbideko unerik erosoenean eginez.

Lurra lantzeko erreminta berri eta hobetuak erabiltzeak nekazal kultura
bilakarazi zuen. Gizona, erromatarren garairako, eginkizun bakoitzerako lana-
bes egokituz baliatzen da. Baina Lubyk dionez, Mendebaldeko nekazal histo-
riaren ezaugarriak Karlomagnoaren garaiaz geroztik zehazten dira. 800
urteaz aurretiko heldu zaizkigun testuak oso urriak dira eta bilakaeraren urra-
tsak berezteko aukerarik ez digute ematen. Zibilizazio guztien artean Erdi
Arokoa izan dela baserritarrena esan behar da. Goi Erdi Aroan, nekazaria eta
artisaua bat ziren, baserrri bakoitza tailerra zen.

Uste denez, golderik zaharrena lurra harrotzen zuen makila zen, lehe-
nengo gizonak berak erabiltzen zuena eta gero abere bakarrak edo gehiagok
tiratua. Berriz ere elazaharretara joz, Habis, tartesiarren erregeak irakatsi
omen zien bere menpekoei idiek tiraturiko goldeaz soroak lantzen.

«Golde-mota berri bat erabiltzen hasi zirelako daukagun lehen froga ziurra
–hala dio Lynn Whitek– J. o.ko I mendearen erdi aldekoa da; garai honetan kon-
trajartzen dio Pliniok, Sirian aurkituriko golde arina Italiako astunari, batez ere
zortzi idiek tiraturikoa zen Po ibarrekoari».

«(...) euskal goldea arina da, esaten du Xahok, hartu nahi den norabidearen
arabera, ezkerrean nahiz eskuinera pasatzen den nabarraren higikortasunari
esker, erraztasunik handienarekin itzul daiteke ildora (...)».

Ikuspegi orokorrigo batetik, saski edo otarregintza buztinezko ontzigintza baino zaharragoa dela aitor dezakegu, azken honek Neolitikoan bait du bere abiapuntua, dakigunez.

Ehiza eta arrantza ziren Paleolitos garaiko gizonaren mantenu nagusia, eta janariaren prestakuntzaren bidetik zurezko ontziraino iristen gara. Gure mende honen lehen herenera arte, batez ere artzainen artean, egosteko erabili den sistema harri goriak ontzian sartzea izan da. Zurezko ontzien artean *kaikua*, *oporra*, *perreta*, *abatza* eta *zimitze*, gazta egin berria sartzen deneko moldearen izenatariko dena ere aipatuko ditut.

Artzainek maiatza, ekaina eta uztailean mozten diete ilea ardiei: XIII mendeko frantsesek erabiltzen zituzten alanbrez hornituriko bi palatxoak artilea txarrantatzeko, gero guk honetan aritzen zen pertsonaren eskuetan ezagutu izan duguna.

Baziren ehundegi txikiak ere, etxeko premiak asetzeko erabiltzen zirenak W von Humboldttek gure baserria deskribatzean, hala dio: «Gelan ehundegia, etxeko beharretarako mihisea egiteko. Baina hau ez dago toki guztietan».

Ehundegi handiagoak ere baziren, ogibide hartatik bizi ziren ehule profesionalizatuek erabiltzen zituztenak. «Gutxi irabazten da iruten, baina gutxiago egoten», entzun ohi zen sarri giro hartan.

Haserako ehundegia zutikakoa zen. Etzanetarako ehundegiak ere izan du bilakaerarik eta horrela erosoagoa eta probetxugarriagoa da erabiltzeko.

XIII mendean ia erabat ageri dira oin-oholez eragindako ehundegiak, eta ezin aipatu gabe utzi ehungintz industriak izan zuen garrantzia XVIII mendeko Iraultza Industrial ingelesean. Salbuespen bakanen batzu gorabehera, gure egunotan, ehule artisaua erabat galdua dela esan dezakegu.

Gure artisautzarik gehiena, nolabait izendatzearen usadiozkoa dei dezakeguna, batez ere familigiroan garatu da. Gurasoetatik semeetara igarotzen zen tailerra, etxearen luzapena zen Karmelo Etxegaraik ongi dioenez.

Industri ekintza hura ez zen burutzen inolako prestakuntza eta legerik gabe, baizik eta araei loturik zegoen, gremio edo kofradia bakoitzak ematen zituzten aginduen indarrez araturik zegoen eta gremio hauetan sarturik zeuden eskulangileak, bai ugazaba gisa edo soldatapeko edo aprendiz modura.

Hirigunea eratzean gremio-antolamendua sortzen da eta zenbait gorabeheraren ondoren beheraka hasten da lantegi handien eraginez, XIX mendearen bigarren atalean batipat.



La madera y su labrado = Zura eta beronen lanketa
/ Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Artesanía Vasca*
= *Euskal Eskulangintza*. - Vitoria : Diputación Foral
de Álava, D. L. 1985 . - 210 p. : il. ; 29 cm. -
P. 161-168. - ISBN: 84-505-2463-6. - OC. T. 2,
p. 683-689